



Heteropterus

Nº 28 Zkia. - Septiembre 2012 Iraila

ISSN: 1576-1819



Sceptia beyonceae,
"eulien izarra"

goitizena duena,
Australian aurkitutako
ezpara bat da.

Gorputzaren
atzeko aldean duen
urre koloreagatik
abeslari estatubatuarraren
izena jarri zioten.

El fotógrafo ruso
Andrey Pavlov se ha
especializado en sacar
fotos a las hormigas
realizando actividades
humanas. No son foto-
montajes sino que se arma
de paciencia con la macro,
prepara el escenario y
espera el mejor momento,
para, por ejemplo, que
parezca que están pescando.



ESKORPIOI EDO

**ARRABIO BATEK
3 URTE EMAN DITZAKE
JAN GABE.**

Begi konposatuak dituzten
eta enfokatu ezin duten
euliek eta beste intsektu batzuek
irudi guztiak oso pixelatuta
ikusten dituzte.

Guk bezala ikusi ahal izateko
metro bateko diametroko
bi begi eduki beharko lituzkete
eta horrek hegan egitea
eragotziko liekete.



Argitaratzailea / Edita:
Gipuzkoako Entomologia
Elkartea - Asociación
Gipuzkoana de Entomología

Lege-gordailua / Depósito legal:
SS - 1.378/99

ISSN: 1576-1819

Erredakzio taldea / Comité de
redacción:

Pedro Ayerbe
Eli Insausti
Mónica Menéndez
Miriam Moreno
Arantza Oyarbide
Faustino Uranga
Imanol Zabalegui

Azalaren diseinua / Diseño de la
portada:
Faustino Uranga

Azaleko argazkia / Fotografía
de la portada:

Leptopterna ferrugata (Fallen, 1807)
HEMIPTERA: HETEROPTERA:
MIRIDAE
Xanti Pagola

Dohainikako argitalpena bazkide,
Gipuzkoako Eskola eta Udale-
txeentzat / Publicación gratuita
para los socios, Colegios y
Ayuntamientos de Gipuzkoa.

HETEROPTERUS

Egoitza soziala / Sede social:
Oiarzun (Gipuzkoa)

Gutunak helbide honetara bida-
li behar dira / Toda la corres-
pondencia debe enviarse a:



HETEROPTERUS

Apdo. 193 P.K.
20120 Hernani (Gipuzkoa)



www.heteropterus.org
heteropterus@heteropterus.org

Nº 28 Zkia. • Septiembre 2012 Iraila

HETEROPTERUS

GIPUZKOAKO ENTOMOLOGIA ELKARTEA
ASOCIACIÓN GIPUZKOANA DE ENTOMOLOGÍA

AURKIBIDEA – ÍNDICE

Ort. / Pág.

Editoriala / Editorial 4

8. Ekitaldi gastroentomologikoa Hernanin /

8º Evento gastroentomológico en Hernani 5-8

Iñaki Recalde

Balfour-Browne Club 9-10

Gipuzkoako intsektuak / Insectos de Gipuzkoa 11-14

Ikastaroak eta jarduerak / Cursos y actividades 15

Han izan ginen / Estuvimos allí 16

Gipuzkoako eguneko tximeleten gida /

Guía de las mariposas diurnas de Gipuzkoa 17

Laguntza eskaera / Solicitud de ayuda 18-19

Hemeroteka 20-21

Intsektuekin jolasean / Jugando con los insectos 22

Faustino Uranga



Oiarzungo Udalaren laguntzarekin

Con la colaboración del
Ayuntamiento de Oiarzun

www.heteropterus.org

EDITORIALA - EDITORIAL



Bazkide egiteko datuak / Datos para hacerse socio

Izen Abizenak / Nombre y Apellidos.....

Helbidea / Dirección.....

Herria / Localidad.....KP / CP.....

Bazkide / Socio: 25 euro urteko / anuales (2012)

Bazkide gaztea / Socio juvenil: 20 euro urteko / anuales (2012)

(Para el extranjero 5 euros más / Atzerriako 5 euro gehiago)

“HETEROPTERUS”

Gipuzkoako Entomologia Elkartea -

Asociación Gipuzkoana de Entomología

Egoitza soziala / Sede social: OIARTZUN (Gipuzkoa)

✉ Gutunak / Correspondencia: Apdo. 193 P.K.

20120 HERNANI (Gipuzkoa)

🌐 www.heteropterus.org

heteropterus@heteropterus.org

Orri hau ez baduzu moztu nahi, fotokopia batean edo paper batean bidali ditzakezu zure datuak.
Si no quieres cortar esta hoja, puedes fotocopiarla o simplemente mandarnos tus datos escritos en una hoja.

8. EKITALDI GASTROENTOMOLOGIKOA HERNANIN

8º EVENTO GASTROENTOMOLÓGICO EN HERNANI

Iñaki Recalde

Negu gogorra bere azkenak ematen ari denean eta alde zuriak irekitzen diren egunak udaberria ateak irekitzen ditu... eguzkiak gogorarazten digu eguzki sistemako hirugarren planetako hemisferio borealean bizitzaren eragiten duen indarra dela. Orduan, entomologoez, gorputza oraindik lozorroan dutelarik, berriro sentitzen dute eutsi ezinezko indar eritrozitikoak. Badator artropodoak agertu aurretik izaten den landare eztanda ikusgarria. Mahukak, aterkiak eta sareak prestatzeko garaia da, baita arteak konpontzeko, orratzak eta azetatoa erosteko, idazlanean argitaratu aurretik

Cuando el frío duro invierno renueva, la impredecible primavera entreabre los ojos y el sol vuelve a recordar su tarea de fuerza motriz de la vida en el hemisferio boreal del tercer planeta del sistema solar... los entomólogos, aún aletargados en lo físico, vuelven a sentir una irresistible efervescencia eritrocítica: es la inminencia del estallido vital vegetal que anticipa la emergencia del universo artropodiano. Es el momento de velar mangas, paraguas y redes, de reparar los sistemas de trampa, de comprar alfileres y acetato de etilo, de apurar las publicaciones en redacción, de acordarse (?) de nues-



Goian / Arriba: Ángel Blázquez, Iñaki Recalde, Felipe Calvo, Roberto Fernández de Gamboa.
Erdian / En medio: Jorge Luis Agoiz, Fernando Hiribarnegarai, Iñigo Alzugaray, Xanti Pagola, Antonio San Martín, Imanol Zabalegui, Víctor Garretas.
Eserita / Sentados: F. Javier Hernández, Faustino Uranga, Arantza Oyarbide, Pedro Espada.

azken ukituak emateko eta gure adiskide (?) den administrazioaz gogoratzeko ere. Eta jakina, amesteko momentua da... Ugaldetxorekin amesteko momentua, hain zuzen ere.

Ez da harritzekoa neguko ikerketa saio luzeen ondorioz entomologok nekatuta egotea eta garai honetarako goseak (eta egarriak) egotea; naturaren, ezagutzaren, hitzordua berrien, aurkikuntzen eta, nola ez, janariaren eta sagardoaren irrikan. Eta batez ere, adiskideak berriro ikusteko gogoia izatea. Ugaldetxo da, beraz, "season" honen leherketa aurreko derrigorrezko hitzordua; urteko "bedeinkazioa" hartu ondoren, "Santutegi" horretatik abiatzen dira norabide guztietara, beren denbora libre a ezagutzaren abentura kitzikagarri eta bukaezin egitea erabaki duten pertsona deskriba ezin horiek.

Aurten ere hantxe elkartu ginen. Denak ez, noski; hainbat gipuzkoarren eta arabarren faltan sumatu genuen. Ezin izan ziren etorri familia arazoak eta era bateko edo besteko bidaiak zituztelako. Katalanek etortzerik ez zuten izan, baina Bizkaiko Ganboa laguna gure artean izan genuen. Aurten ez genuen batzuetan hain "mingarri" izan diren mus partidarik izan. Angel Blázquez eta Víctor Garretas etorri ziren Extremadura & Gaztelako enbaxadore gisa, eta Nafarroa ere, gure Nafarroa gaundiezina, Zangotzako armarrak dioen bezala "inoiz huts egin ez duena" ezin hobeki ordezkaturia izan zen. Hainbat beterano adituen hutsunea ere sentitu genuen. Paregabea den Amaiak lagunduta, Arantza Oyarbidek ordezkatu zituen emakumezkoak. Beti bezala bikain, biak



tra amiga la administración, es el momento de soñar... con Ugaldetxo.

No es casualidad que sea en estas fechas cuando los entomólogos, exhaustos de las largas sesiones de estudio invernales, sienten... hambre (y sed). Hambre y sed de naturaleza, de conocimiento, de nuevas citas, de descubrimientos y también, hambre de comida y sed de sidra y, sobre todo, de amistad y roce con las almas gemelas. Ugaldetxo es pues, una cita obligada previa al estallido de la "season"; es el santuario del que, tras recibir la bendición anual, parten en todas direcciones esos seres indescriptibles que decidieron hacer de su tiempo libre una excitante e inacabable aventura de conocimiento.

Allí estábamos este año también. No todos, pues inevitables temas familiares o viajes de diversa índole desencadenaron algunas notables ausencias de alaveses y guipuzcoanos. La sección catalana no pudo llegar, pero Bizkaia salió airoso gracias a la presencia del amigo Gamboa (y sobre todo a la ausencia de partidas de mus, a menudo tan dolorosas...). Extremadura & Castilla enviaron destacados embajadores encabezados por el señor Ángel Blázquez y Víctor Garretas, y Navarra, que decir de la insuperable Navarra!... siempre puntual, y bien representada; "la que nunca faltó" como reza en el escudo de Sangüesa. Por el lado de los expertos veteranos echamos de menos algunas caras entrañables. El lado femenino estuvo representado por la siempre soberbia (en el buen sentido) Arantza Oyarbide, asistida por una insuperable



hala biak, urteak joan eta urteak etorri deialdi kuttun honetako musak. Zenbat esker zorote diegu horiei?

Tabernan zer edo zer hartu ondoren, goiko solairura igo ginen, bertan bazkaldu aurretik mokadu batzuk hartzera. Urtero bezala azpimarratzekoak Arantzak berak prestatutako antxoak. Egundokoak! Horien miresle nagusia Antonio San Martín dugu eta, jakina, berak jan zituen gehienak. Tuter (inoiz huts egin ez duena) hain sonatuak egin diren antxoak bukatzeaz zeudela agertu zen, Jorge Agoizen eskutik.

Bazkal aurreko unea entomologoei eta entomologiari buruz hizketan eman genuen. Aurten gutxi aipatu genituen *Aulonothroscus*-a, *Vesperus*-a, *Dorcadion*-a, *Cerambyx*-a eta *Rosalia*. Gure berriketan gehiago izan genituen bestelako gaiak: Baltikoan barrena egindako itsas bidaia edo barrukietan oinarritutako sukaldaritzari buruzko eztabaidak, zeintzuek umorezko txistek eta kontakizunak ekarri zituzten ondoren. A zer nolako barre algarak egin genituen txiste horien kontura!

Bertako sagardoaren laguntzarekin kontaktu sozialak berriztu ondoren, bakoitzak bere tokia hartu zuen mahai inguruan. Batzuk ados ez bazeuden ere, ez zen mahaia bedeinkatu... edo ez daukagu oso argi bedeinkatu zen ala ez. Hurrengoetarako hobetu beharreko gaia dugu hori.

Bazkal garaian izan genituen elkarrizketak nahiko heterodoxoak izan ziren. Gogoeta zoologiko-ebolutiboak eta ekologiko-kon-



Amaia, ambas, musas año tras año de esta entrañable convocatoria y las que tanto tenemos que agradecer.

Tras unos breves preliminares de taberna, pasamos al piso superior donde comenzó el brunch aperitivo previo a la comida, en el que destacaremos las insuperables anchoas que, cada año, prepara personalmente nuestra querida Arantza. Antonio San Martín, principal admirador de este plato, dio buena cuenta de una parte del mismo. Tudela (otra que nunca faltó), apareció justo a tiempo de probar las últimas de las afamadas antxoas por boca de Jorge Agoiz.

Los chascarrillos entomológicos coparon buena parte de la socialización que precede a la comida, aunque este año oímos poca cosa de *Aulonothroscus*, *Vesperus*, *Dorcadion*, *Cerambyx* y *Rosalia*, que pronto dieron paso a temas más mundanos como los ya afamados cruceros por el Báltico o encendidos debates sobre la gastronomía basada en casquería, temas que a su vez trajeron de la mano algunos chascarrillos humorísticos de índole desenfadada.

Restablecidos los contactos sociales por mor de estos preliminares de aproximación convenientemente regados por sidra del país, tomamos posiciones alrededor de la mesa. Pese a algunas protestas, ésta no se bendijo, o no quedó claro si esto llegó a suceder. Este es, claramente, un punto a mejorar en el futuro.

Las conversaciones en la comida fueron, digamos que heterodoxas. No faltaron



tserbazionista burutsuak egin genituen, eta hurrengo bilera Zamoran egiteko proposamenen bat ere izan zen, baina lehenengo platera jan arte iraun zuten soilik. Besteetan baino jende gutxiago izateak, bakoitzaren esertzeko tokiak, edariaren kalitateak, lagun-kalitateak, giro onak edo batek daki zer, handiagotu egin zituen mahaiaren alde batekoen eta bestekoen arteko harremanak, eta bertako guztiek espero ez zuten humore-katarsi bat izan zen.

Bazkari bikainaren ostean, eta gosea eta egarria ase ondoren, gerturatutakoek poz handia hartu zuten aurtun power point aurkezpenik ez zela izango jakin zutenean. Hori horrela, denak han joan ginen urtero ateratzen dugun familia argazkia ateratzera, zeina gero GEE-ak erabiltzen duen interneteko web orrian jartzeko. Oraindik ere neure buruari galdetzen diot nola litekeen aldizkari-ko aurreneko argazkiak txuri beltzean egotea. Hainbeste urte ba ote dira elkartzeko gaitasuna? Ala garai hartan ez genuen koloretako argazkiak ateratzeko kamera bat eros- teko adina diru? Ez dut gogoan.

Pixkanaka-pixkanaka agurtzeko garaia iritsi zen: besarkadak, ohiko bihurtzen ari diren kaxa aldaketak, etab... Baina dena ez zen han bukatu. Jakin dugunez, gerturatutako batzuk urtero elkartzeko omen dira era klandestinoan Hernanin, eta bertan afaltzen omen dute, arriskutsua izan litekeen herriko maitre baten eskutik...

Hurrengo deialdiaren zain geratzen gara: Arantza, Imanol, Xanti. Mila esker!



sesudas reflexiones zoológico-evolutivas, y ecológico-conservacionistas, y amagos de convocar la siguiente reunión en Zamora, pero no fueron mucho más allá del primer plato. Ya fuera el menor número de asistentes, la composición genérica, la calidad de los caldos, la calidad de la compañía, el buen ambiente reinante, o yo que sé qué, los contactos entre un lado y otro de la mesa se intensificaron, finalizando en una catarsis humorística que colmó las expectativas de disfrute de todos los asistentes.

Tras una biodiversa y excelente comida, y saciados ya hambre y sed, la asistencia comprobó con enorme satisfacción que este año no había sesión de power point, por lo que se procedió a posar para la tradicional foto de familia, con la que la AGE nutre la colección de internet de su web. Por cierto; aún me pregunto cómo es posible que las primeras estén en blanco y negro ¿pero tantos años hace que nos reunimos? ¿o es que por aquel entonces no nos llegaba ni para cámaras en color? No recuerdo.

Poco a poco la cosa llegó a su fin, despedidas, abrazos, el tradicional trapicheo de cajitas, etc... pero no todo acabó allí, pues hemos sabido que un grupo de asistentes se reúne año tras año de forma clandestina en Hernani y... cenan juntos hasta tarde, de la mano de una peligrosa maîtresse local...

Esperamos ya con ansiedad la próxima convocatoria: Arantza, Imanol, Xanti: mila esker!

Restaurante **VGALDETXXO** Jatetxea

Ereñozu auzoa - Tel.: 943 55 02 40
20128 **HERNANI** (Gipuzkoa)

Balfour-Browne Club

Argazkiak / Fotografías: Xanti Pagola

2012ko ekainaren 8tik 11ra Balfour-Browne Club-eko hainbat kide izan dira Gipuzkoan.

El Balfour-Browne Club ha visitado Gipuzkoa entre el 8 y 11 de junio de 2012.



Nazioarteko Elkarte hori, uretako koleopteroetan aditu direnek osatzen dute eta urtero Europako herri desberdin batean antolatzen dute elkarren arteko topaketa. Aurten, Gipuzkoako Entomologia Elkartearen laguntzarekin, gure herria ezagutzeko aukera izan dute, baita bertako uretako ekosistemak ikertzekoa ere.

Se trata de una agrupación internacional de estudiosos de los coleópteros acuáticos y cada año organizan un encuentro en un lugar distinto de Europa.

Este año, en colaboración con la Asociación Gipuzkoana de Entomología, han podido conocer nuestra geografía e investigar sus ecosistemas acuáticos.



Europako hainbat herrialdetako 30 pertsona baino gehiago ibili dira Gipuzkoan uretako ekosistemak ikertzen, batik bat, babestutako natura-guneetakoak: Aiako Harriak eta Aralarko Parke Naturalak,.... Taldeak Hernaniko Pardiola nekazal etxean hartu zuen ostatu eta bertatik antolatu ziren irteera guztiak.

Más de 30 personas de distintas nacionalidades europeas han muestreado ecosistemas acuáticos en el territorio gipuzkoano con especial esfuerzo en los espacios naturales protegidos como el Parque Natural de Aiako Harria, Parque Natural de Aralar, etc. El grupo se alojó en la casa rural Pardiola de Hernani, desde la que organizaron todas las excursiones.



Egonaldia osatzeko Elorrabi sagardotegian afari bat egin genuen. Trikitixa ere izan zen. Adierazi zigutenez, oso pozik joan ziren jasotako harrerarengatik.

Su estancia se complementó con una cena, amenizada con trikitixa en la sidrería Elorrabi, el sábado por la noche. Estamos seguros de que se fueron encantados con el tratamiento recibido.



Igandean Ugaldetxo jatetxean afaldu ondoren, Austriako Helen Shaverdo-k hitzaldi bat eman zigun bere ikerketa lanak azaltzeko. Horrekin amaitutzat eman genuen topaketa.

Para concluir, después de la cena del domingo en el Restaurante Ugaldetxo, Helen Shaverdo, de Austria, nos dio una pequeña conferencia informándonos del curso de sus investigaciones.

GIPUZKOAKO INTSEKTUAK - INSECTOS DE GIPUZKOA

LEPIDOPTERA

NOCTUIDAE

Cryphia algae

(Fabricius, 1775)

Neurria: 24-30 mm.

Belaunaldi bakarra dute eta helduak uztailetik irailera ikus daitezke hegan. Espezie migra-tzailea da eta hegoetako irudia dela eta hainbat forma ditu.

Beldarrak zuhaitzen azaleko likenetan aurkitu izan dira, maiatz-ekainean.

Gipuzkoan urria da.



Tamaño: 24-30 mm.

Los adultos vuelan en una sola generación de julio a septiembre. Es una especie migratoria y tiene varias formas según el dibujo de las alas.

La oruga ha sido citada en mayo - junio sobre líquenes de la corteza de los árboles.

Es escaso en Gipuzkoa.

LEPIDOPTERA

NOCTUIDAE

Cucullia gnaphalii

(Hübner,[1813])

Neurria: 38-46 mm.

Ekainetik abuztura aurki daitezke, belaunaldi bakar batean. Belardi arrokatsuak eta baso hegiak dituzte gustuko. Oso erraz bereizten dira beste Cucullia-etatik, besteez ez bezala, giltzurrun forma duen orbaina baitute hegoetan.

Beldarrak *Solidago*, *Artemisia* eta *Chrysanthemum* generoko landareak janez elikatzen dira.

Gipuzkoan urria da.



Tamaño: 38-46 mm.

Vuelan en una sola generación de junio a agosto. Se distingue fácilmente de las otras Cucullias por las manchas centrales en forma de riñón. Pueden verse en praderas rocosas y laderas de bosques.

Las orugas se alimentan de plantas del género *Solidago*, *Artemisia* y *Chrysanthemum*.

Es escaso en Gipuzkoa.

GIPUZKOAKO INTSEKTUAK - INSECTOS DE GIPUZKOA



LEPIDOPTERA

NOCTUIDAE

Cucullia umbratica

(Linnaeus, 1758)

Neurria: 50-58 mm.

Maiatzetik abuztura ibili ohi dira hegan. Belaunaldi bakarra eta urria dute. Lugarrietan, kostako hezeguneetan eta larreetan ibiltzen dira. Argi artifizialak erakarri egiten ditu eta egunez ere nonahi ikus daitezke pausatuta. Larbak *Galium*, *Taraxacum*, *Lactuca*... janez elikatzen dira eta negua krisalida gisa ematen dute.

Gipuzkoan urria da.

Tamaño: 50-58 mm.

Los adultos vuelan en una sola generación muy escasa de mayo a agosto. Frecuentan terrenos baldíos, humedales costeros y pastizales. Son atraídas por la luz artificial y también se las ve posadas durante el día.

Las larvas se alimentan de *Galium*, *Taraxacum*, *Lactuca*... e hibernan como crisálida.

Es escaso en Gipuzkoa.



LEPIDOPTERA

NOCTUIDAE

Diachrysia chrysis

(Linnaeus, 1758)

Neurria: 28-35 mm.

Tximeleta helduak maiatzetik irailera aurki daitezke eta bi belaunaldi dituzte. Basoak, lugarriak eta lorategiak dituzte gustuko. Goiko hegoetan dituzten marra diagonal berde distiratsuak direla eta, erraz bereizten dira besteetatik.

Mentha, *Lamium*, *Salvia*... bezalako belarkiak janez elikatzen dira beldarrak.

Gipuzkoan urria da.

Tamaño: 28-35 mm.

Los imagos vuelan en dos generaciones, de mayo hasta septiembre. Frecuentan bosques, terrenos baldíos y jardines. Son fáciles de identificar por sus bandas diagonales de color verde metalizado.

Las orugas se alimentan de plantas herbáceas como *Mentha*, *Lamium*, *Salvia*...

Es escaso en Gipuzkoa.

GIPUZKOAKO INTSEKTUAK - INSECTOS DE GIPUZKOA

LEPIDOPTERA

NOCTUIDAE

Lacanobia oleracea

(Linnaeus, 1758)



Neurria: 38-40 mm.

Bi belaunaldi dituzte, bata apirilean eta bestea urrian.

Tximeleta eme bakoitzak 1.000 bat arrautza jar ditzake. Beldarrak hainbat landare janez elikatzen dira eta izurriteak sor ditzakete azetan, zainzurietan, sagarrondoetan, arbietan, toma-teetan, etab.

Krisalida lurrean egiten du, nahiko azpian.

Gipuzkoan urria da.

Tamaño: 38-40 mm.

Los imagos vuelan en dos generaciones, en abril y octubre.

Cada hembra puede poner unos 1000 huevos.

Las orugas se alimentan de diversas plantas y puede producir plagas en coles, espárragos, manzanos, nabos, tomates, etc.

Crisalidan bajo tierra a bastante profundidad.

Es escaso en Gipuzkoa.

LEPIDOPTERA

NOCTUIDAE

Xylocampa areola

(Esper, 1789)



Neurria: 34-36 mm.

Tximeleta helduak udaberrian ikus daitezke, martxoan, apirilean eta maiatzean.

Lonicera janez elikatzen dira beldarrak. *Lonicera*-k eta beldarrekin, kolorea hain berdintzua dutenez, landarearen adar lehorrekin nahasten dira beldarrak.

Setazko kapulu marroi bat eginda krisalidatzen dira, lur azalean edota lurreko orbel artean.

Gipuzkoan urria da.

Tamaño: 34-36 mm.

Los imagos vuelan en los meses de primavera, marzo, abril y mayo.

Las orugas se alimentan de *Lonicera*. Por su colorido se confunden con las ramas secas de la planta.

Crisalidan enterrándose a poca profundidad o entre la hojarasca, tejiendo un capullo de seda de color marrón.

Es escaso en Gipuzkoa.

GIPUZKOAKO INTSEKTUAK - INSECTOS DE GIPUZKOA




Neurria: 30-35 mm.

Tximeleta helduak abuztuan, irailean eta urrian aurki daitezke.

Beldarrak, batez ere, gramineoak janez elikatzen dira. Horrez gain, asunak, zain-belarrak eta soroetan aurkitzen dituzten hainbat landare konposatu ere jaten dituzte. Autore batzuek diotenez, arrautza gisa hibernatzen dute eta beldarrak udaberrian eta uda hasieran garatzen dira.

Gipuzkoan urria da.



Tamaina: 28-34 mm.

Bi belaunaldi dituzte, bat apiriletik ekainera eta bestea abuztutik irailera.

Ur laster inguruan dauden sastraka lehorrak eta ezpondak dituzte gustuko; bertatik, inguruko baratzak erasotzen ditu askotan. Krisalida gisa ematen dute negua.

Gipuzkoan urria da.

LEPIDOPTERA

NOCTUIDAE

Xestia xanthographa

(Denis & Schiffermüller, 1775)

Tamaina: 30-35 mm.

Los imagos vuelan en los meses de agosto, septiembre y octubre.

Las orugas se alimentan preferentemente de graminéas. También de ortigas, llantén y algunas compuestas que se encuentran en prados. Según algunos autores, el huevo invernaría y las orugas se desarrollarían en primavera y principios de verano.

Es escaso en Gipuzkoa.

LEPIDOPTERA

NOCTUIDAE

Ochropleura plecta

(Linnaeus, 1761)

Tamaina: 28-34 mm.

Los imagos vuelan en dos generaciones, en abril-junio y agosto-septiembre.

Vive en matorrales secos junto a cursos de agua y ribazos desde donde, a menudo, invade los cultivos.

Inverna como crisálida.

Es escaso en Gipuzkoa.

IKASTAROAK ETA JARDUERAK / CURSOS Y ACTIVIDADES

Aurtengo udan ere Elhuyar Fundazioak eta Eusko Jaurlaritzak antolatutako Udaleku Zientifikoak izan dira Aiako Harria Parke Naturelean dagoen Oartzungo Arritxulo aterpetxean.

Xanti Pagola doktoreak hainbat gazte talderi entomologia ikastaro praktikoak eman zizkien. Irteerak egin ziren parkera, bertan intsektuak ikusi eta hartzeko, gero laborategian ikertzeko. Horren helburua, gazte gipuzkoarren intsektuekiko interesa piztea da.

Un verano más, en el albergue Arritxulo de Oiartzun, dentro del Parque Natural de Aiako Harria, se han celebrado las Colonias Científicas organizadas en colaboración por la Fundación Elhuyar y el Gobierno Vasco.

El Dr. Xanti Pagola impartió unas clases prácticas de entomología a varios grupos de jóvenes. Se realizaron excursiones por el parque para observar insectos y recolectar algunos ejemplares que luego se estudiaron en el laboratorio. Todo ello con la finalidad de motivar el interés de los jóvenes gipuzkoanos por los insectos.



Portugaleteko parke batean genbiltzala, ezin izan genion argazkia hau egiteko gogoari eutsi.

Paseando por un parque de Portugalete, no pudimos resistirnos a hacer esta foto.

HAN IZAN GINEN / ESTUVIMOS ALLÍ

Gipuzkoako Entomologia Elkartea

2012ko abuztua.

Gipuzkoako Entomologia Elkarteko kidea den Felipe Calvo Sanchez-ek, Salamancako Puebla de Azaba herrian jarritako Intsektu erakusketa.

Agosto de 2012.

Exposición de Insectos realizada por Felipe Calvo Sánchez, de la Asociación Gipuzkoana de Entomología, en Puebla de Azaba, Salamanca.



Gipuzkoako eguneko tximeleten gida

Guía de las mariposas diurnas de Gipuzkoa

Gipuzkoako eguneko tximeleten gida

Heteropterus 25. zkia

2011ko martxoa

20 x 15 cm

40 orrialde

Textua eta koloreetako 16
lamina

ISSN: 1576-1819

Gipuzkoako Entomologia
Elkartea / Asociación
Gipuzkoana de Entomología



**Guía de las mariposas
diurnas de Gipuzkoa**

Heteropterus nº 25

Marzo 2011

20 x 15 cm.

40 páginas

Texto +16 láminas a color

ISSN: 1576-1819

Gipuzkoako Entomologia
Elkartea / Asociación
Gipuzkoana de Entomología



Gipuzkoan gaurdaino katalogatu diren 98
eguneko tximeleta espeziaren gida.

Lortu nahi izanez gero, jarraian agertzen
den korreo elektronikoan eskatu eta behar
adina ale bidaliko dizkizugu, dohainik:

heteropterus@heteropterus.org

Bestela, nahiago baduzu **[www.heterop-
terus.org](http://www.heteropterus.org)**-etik deskargatu dezakezu.

Guía de las 98 especies de mariposas
diurnas catalogadas hasta el momento en
territorio gipuzkoano.

Si te interesa, puedes solicitarlo enviando
un correo electrónico a:

heteropterus@heteropterus.org

Te lo enviaremos gratuitamente.

O si lo prefieres, puedes descargarte el
pdf en:

www.heteropterus.org

LAGUNTZA ESKAERA: Iberiar *Tenebroides*-ak

Pablo Bahillo de la Puebla (1) eta José Ignacio López Colón (2)

- (1) Plaza López de Ayala, 8, 5º A-B; E-48903 Barakaldo (Bizkaia). ESPAÑA. E-mail: pbahillo@irakasle.net
(2) Plaza de Madrid 2, 1º/D; E-28523 Rivas-Vaciamadrid (Madrid). ESPAÑA. E-mail: lopezicolon@gmail.com

Tenebroides Piller et Mitterpacher, 1783 generoaren (Coleoptera, Trogossitidae), hiru espezie aurki ditzakegu Iberiar Penintsulan: *Tenebroides fuscus* (Goeze, 1777), *Tenebroides mauritanicus* (Linnaeus, 1758) eta *Tenebroides maroccanus* (Reitter, 1884). Beren arteko morfologia berdintsua denez, oso zaila egiten da desberdintzea.

Hiru taxonak bereizteko zailtasunak direla eta, haien Iberiar Penintsulako korologia behar bezala argitu gabe dago.

Espezie horiek penintsulan nola banatuta dauden argitzeko, ezinbestekoa da ahal den ale gehien ikertzea. Horregatik, eskertuko genizueke zuen bildumetan duzuen genero honetako material ibe-riarra bidaltzea. Jasotako materiala hilabete pasa baino lehenago itzuliko genizueke, behar bezala etiketatuta. Proiektu hau aurrera eramateko laguntza eskaintzen diguzuen guztien izena eskertzen atalean agertuko da, lana argitaratutakoan.

Hemen doakizue espezie horietako baten irudia, identifikazioa erraztuko duelakoan.

Eskaera honen izenburuan agertzen den lehenengo autoreari bidali behar zaio materiala.



Tenebroides mauritanicus (Linnaeus, 1758)

Mila esker zuen laguntzagatik.

SOLICITUD DE AYUDA: *Tenebroides* ibéricos

Pablo Bahillo de la Puebla (1) y José Ignacio López Colón (2)

- (1) Plaza López de Ayala, 8, 5° A-B; E-48903 Baracaldo (Vizcaya). ESPAÑA. E-mail: pbahillo@irakasle.net
(2) Plaza de Madrid 2, 1°D; E-28523 Rivas-Vaciamadrid (Madrid). ESPAÑA. E-mail: lopezicolon@gmail.com

El género *Tenebroides* Piller et Mitterpacher, 1783 (Coleoptera, Trogossitidae) está representado en la Península Ibérica por tres especies [*Tenebroides fuscus* (Goeze, 1777), *Tenebroides mauritanicus* (Linnaeus, 1758) y *Tenebroides maroccanus* Reitter, 1884], caracterizadas por una elevada uniformidad morfológica que hace difícil su diferenciación específica.

Esta dificultad a la hora de separar los tres taxones, ha motivado que su corología en el ámbito ibérico no esté debidamente clarificada.

Con el fin de concretar el área de distribución peninsular de esas especies, necesitamos estudiar el mayor número posible de ejemplares, por lo que os agradeceríamos nos enviarais para estudio el material ibérico de este género que tengáis en vuestras colecciones. El material será devuelto, debidamente etiquetado, en un plazo inferior a un mes después de su recepción. Todos aquellos colegas que colaboren en este proyecto serán citados en el capítulo de agradecimientos de la publicación que realicemos.

Os adjuntamos imágenes de una de estas especies para facilitar su identificación.

El material deberá ser remitido al primero de los autores de esta solicitud.



Tenebroides mauritanicus (Linnaeus, 1758)

Mil gracias por vuestra colaboración.

HEMEROTEKA



Zergatik ari dira galtzen erleak?

Asiako liztorra? Birus bat? Kutsadura? Erleak milioika ari dira hiltzen munduan, ez jakin zergatik. Le mystère de la disparition des abeilles dokumentalak zer gertatzen ari den azaltzen du.

berria 2012/08/28

El zoo del Bronx propone expresar el amor en San Valentín con cucarachas

Si uno no logra decidir cómo expresar su amor por alguien especial el próximo día de San Valentín, un parque zoológico de Nueva York tiene la solución: simplemente con cucarachas. "La Sociedad de Conservación de la Vida Silvestre del Zoológico del Bronx propone una manera divertida para asegurarse de que su ser querido sabe que sus sentimientos son para siempre: con una cucaracha con su nombre", dijo el

Noticias de Gipuzkoa 29/01/2012

PALENCIA > Un vecino de Burgos muere tras sufrir varias picaduras de avispa

Un hombre de 62 años y vecino de Burgos falleció en la localidad palentina de Mantinos tras sufrir varias picaduras de avispa. El suceso tuvo lugar el miércoles cuando la víctima se encontraba pescando junto con otras personas en la zona de Las Vegas. La víctima había recibido varias picaduras de avispa, a las que era alérgico, lo que la autopsia ha revelado como causa de la muerte. >EUROPA PRESS

Deia 31/08/2012

parque en un comunicado. El Zoológico del Bronx ofrece varias opciones para demostrar amor eterno a través de este insecto, famoso por estar en la Tierra desde hace millones de años. Por 10 dólares (unos 7,5 euros), uno puede ponerle el nombre de su media naranja o quizás de su expareja a una cucaracha. Pero no a cualquiera, sino a una de la colección de cucarachas de una especie nativa de la isla de Madagascar, frente a la costa de África. Por 25 dólares (casi unos 19 euros), en cambio, los enamorados pueden darle su nombre a una pareja de estos insectos. El zoo aclaró que cada donación ayuda a esta entidad a preservar a todos los animales, los pequeños, los hermosos y los mal-ditos, tanto en los bosques de Madagascar como en otros lugares del mundo salvaje.

HEMEROTEKA

Noticias de Gipuzkoa 13/08/2012

Una araña anida en el oído de una mujer china durante cinco días

Los continuos dolores y picores dentro de la izquierda de la cabeza llevaron a una mujer hasta el hospital chino Changsha Central donde, tras practicarle gran cantidad de pruebas, los médicos descubrieron que tenía una araña alojada en su oído durante al menos cinco días. Ante la posibilidad de que el nido se adentrara más profundamente en el oído o el insecto le mordiera, los médicos se apresuraron a extraerlo, lavándolo con una solución salina. Según la versión sanitaria, la araña pudo entrar en el oído de la señora mientras dormía.

Exhiben en Londres una capa y una bufanda hechas con la seda de un millón de arañas

Una capa bordada y una bufanda confeccionadas a partir de los hilos de seda producidos por más de un millón de arañas están expuestas

en el Museo Victoria and Albert (V&A) de Londres, que los presenta como el mayor ejemplo de este género en el mundo. Cuatro años fueron necesarios para crear estas prendas únicas, según el museo. Son obra de un británico, Simon Peers, y de un estadounidense, Nicholas Godley, quienes se inspiraron de ilustraciones del siglo XIX. La última creación de tela de seda de araña conocida fue creada para la Exposición Universal de París de 1889, pero no se conserva ni un solo retal, señala el prestigioso museo nacional de arte y diseño británico. Para realizar esta pieza de seda de cuatro metros de largo sus creadores recogieron cada mañana arañas hembra salvajes de una especie determinada para extraerles la seda. Se necesitaron más de un millón de arañas para suministrar la cantidad de seda necesaria y 80 personas. Las piezas podrán verse en el museo hasta el 5 de junio.

Noticias de Gipuzkoa 02/02/2012



social
kutxa



INTSEKTUEKIN JOLASEAN JUGANDO CON INSECTOS

Faustino Uranga



*Líndon-ek, animalien munduko kakalardo pilo-
tagile jakintsuenak, munduan barrena egin
dituen bidaletan ezagutu dituen bi problema
planteatu dizkigu. Ea asmatzen dituzun!*


a) Guraizea askatu behar da

Irudian ikus daitekeen moduan, guraizeen bi begietatik soka bat pasa behar da, eskuineko begiaren eta eskuaren artean 20 bat zentime-
troko tarte utzita (eskua erabili ordez, soka
edozein toki finkotan lotu daiteke). Guraizeak
lotzen dituen korapiloa nola askatu asmatu
behar da, sokaren muturrak moztu edo askatu
gabe, biak bereizita geldituko direlarik.
Asmakizun hau "korapilo gordiano" izeneko
antzinako problema batean oinarritua dago.

*Líndon, el escarabajo pelotero más sabio del
reino nos plantea dos problemas que ha
conocido a lo largo de sus innumerables via-
jes por el mundo.*

a) Soltar la tijera

Hay que pasar la cuerda por los ojos de las
tijeras tal como se ve en la ilustración dejan-
do una distancia de unos 20 cm entre el agu-
jero derecho y la mano (que se puede susti-
tuir atándolo a cualquier sitio fijo). El acertijo
consiste en desatar el nudo que sostiene las
tijeras sin soltar ni cortar los extremos del
cordel, quedando así separados ámbos.
Está basado en un antiguo problema llama-
do nudo gordiano.




b) Bi aurpegi eta bi gurutze

Jarri hiru txanponak aurpegia aurpegiarekin
eta gurutzea gurutzearekin aldi berean
ukitzen dutela.

b) Dos caras y dos cruces

Colocar tres monedas de tal forma que se
tienen que tocar a la vez cara con cara y
cruz con cruz.






El Indicator indicator, pequeña ave de África subsahariana, llama la atención de las personas con su canto para luego guiarlos hasta donde se encuentra una colmena de abejas. Este comportamiento es interesante porque luego se alimenta de las larvas y la cera del destruido panal.

**KILKERRAK
ETA
MATXINSALTOAK
6 METRO LUZEKO
SALTOAK EMATEKO
GAI DIRA,
DUTEN PISUAREN
ARABERA.**

*Bizitzarik luzeena
duen intsektua
termita erregina da;
50 urte
bizi daiteke.*

**NEPHILA CLAVIPES- EK,
URREZKO ARMIARMA ERRALDOI
EZIZENEZ EZAGUNAK,
EGITEN DU SARERIK HANDIENA,
METRO BATEKO DIAMETROA
BAINO HANDIAGOA DU ETA
BERTAN IGELAK ERE
ERORTZEN DIRA.**





mendi-z-mendi
paisajes culturales

mende-z-mende
naturaleza con historia



GIPUZKOA
zurekin, aurrera ➤